



SERVICIO SOCIAL DE BASE
OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUA

Plaza Mutiloa, s/n - 1ª planta
Mutiloa plaza, z/g - 1. solairua
☎ 948 15 13 82
📠 948 24 34 91
31192 MUTILVA / MUTILOA
NAVARRA/ NAFARROA
www.aranguren.es

EGUBERRIETAKO TAILERRA 2021 PROKOLOA: ARANGUREN IBARREKO UDALA

Ezin dugu ahaztu aurreko hilabeteetan gertatutakoa eta egindako ahalegin izugarria. Koronabirusak gure artean jarraitzen du, eta baita kutsatzeko arriskuak ere.

Horregatik, eta gaur egungo osasun egoera kontuan hartuta, 2021 urteKO EGUBERRIETAKO TAILERRA partaide guztientzat eremu segurua izan dadin, oso garrantzitsua da higiee eta segurtasun protokolo eta arau ezberdinak ezartzea.

Aranguren Ibarreko Udaleko Gizarte Zerbitzuak Nafarroako Gobernuo Osasun Departamentutik igortzen dizkiguten osasun eta segurtasun neurri guztiak eta horiek betetzeko ematen dituzten aholku guztiak beteko ditu, baita zerbitzua ematen ari den bitartean zehazten direnak ere.

Dokumentu honetan ezarritakoa COVID-19ri aurre egiteko sortutako osasun-gomendio eta araudi berrien ondorioz aldatu egin daiteke. Gerta daitezkeen aldaketek jardueretan, edukieretan edota horiek garatzen diren espazioetan eragin dezakete.

1. MASKARAK:

EGUBERRIETAKO TAILERREAN parte hartu ahal izateko haur bakoitzak (2010 eta 2018 bitartean jaiotakoak) maskara bat ekarri beharko du. Ahaztu edo apurtu egiten bazaio bat emango zaio Tailerrean.

Zerbitzuak irauten duen bitartean maskara eramatea nahitaezkoa izango da bai parte-hartzaileentzat baita begiraleentzat ere.

2. ESPAZIOAK:

Ahal den guztietan aire zabaleko espazioak erabiliko dira jarduerak egiteko. Espazio bakoitzaren erabilerari buruzko arauak ezartzen dituen **edukierak errespetatuko dira**.

Ahal den neurrian, jardueretan kontaktu fisikoak saihestuko dira.

Aretoetan egiten diren jarduerak baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Espazio hori behar bezala desinfektatuta egongo da. Egun berean jarduera bat baino gehiago egiten bada ikasgelan, horien artean ere desinfektatuko da. Aretoak paper, gel desinfektatzaile eta desinfektatzeko erabilitako elementuak uzteko kaxa huts batez hornituta egongo dira.
- Gainera, gela bakoitzeko leihoak irekita egonen dira, aireztapen egokia ziurtatzeko. Halaber, aretoetako atak irekita egotea sustatuko da, azalera komunak uki ez daitezen.
- Komunen erabilerari dagokionez, gehieneko okupazioa bi pertsonakoa izanen da eta maiztasunez desinfektatuko dira.

Jarduerak kanpoan egiten direnean, haurrek modu seguruan parte hartzeko moduan diseinatuko dira.

Haurren objektu edota arropa guztiek beren izenez markatuta egon beharko dute. Tailerrera ezingo da behar ez diren jolas edota materialik eraman.

Gune bat zehaztuko da haurrek **hamaiketakoa** egin dezaten, eta eguraldiak aukera ematen badu, kanpoan egingen da.

Haur bakoitzak bere hamaiketakoa ekarriko du eta ezin izango da konpartitu.

3. ESKUAK DESINFEKTATZEA:

Eskuak desinfektatuko dira EGUBERRIETAKO TAILERRAREN sarrera eta irteeratan, jarduera aldaketa bakoitzean, eta hamaiketakoaren aurretik eta ondoren (hidroalkohola jarriko da gune bakoitzean).

Hezitzaile bakoitzak gel desinfektatzailea edota esku-xaboa erraztuko die txikiei horretarako.

Egonaldian zehar eta jardueraz aldatzen den aldioro, parte-hartzaileek zein begiraleek, eskuak gel desinfektatzailearekin desinfektatuko dituzte.

Halaber, **Eguberrietako Tailerraren lehen eguna**, haurrentzako segurtasun eta higiene neurriak betetzeari buruzko informazio hitzaldi batekin hasiko da.

Segurtasun portaerak eta distantzia, higiene-neurriak eta abar gogoratzeko mezuak eta kartelak indartuko dira.

4. TALDEEN ANTOLAKETA:

Izena emateko epea amaitutakoan, haurrak taldeka banatuko dira, araudiak une horretan adierazten duen aretoaren edukieraren arabera.

Banaketa ahalik eta homogeneoena egingen da, adinaren eta hizkuntzaren arabera.

5. SARRERA ETA IRTEERETARAKO PROTOKOLOA

Inauterietako Tailerreko sarrera eta irteerak Mutiloako San Pedro eskolako ate nagusitik egingo dira, parte-hartzaile bakoitzaren artean 1,5 metroko segurtasun tarte gordez, eta, hartara, arauzko segurtasun tarte betez.

Edozein sarrera/irteeratarako, familia bakoitzeko pertsona heldu bakarra joatea eskatzen da. Maskara erabili beharko da, gutxienez 1,5 metroko tarte utzi beharko da eta hurrak bakarrik sartu ahalko dira ikastetxera.

Familiei pazientzia eta laguntza eskatuko zaie, parte-hartzaileen eta begiraleen segurtasuna bermatzeko.

Eguberrietako Tailerrera modu mailakatuan sartu ahal izango da **9:30ak arte.**

Sartu eta ateratzen diren aldiro haur guztiek zapatak desinfektatu beharko dituzte desinfektatzeko egongo diren alfonbrak erabiliz, eta eskuak gel desinfektatzailearekin garbitu beharko dituzte, baita maskara erabili ere.

Osasun arauak hala adierazten badu, monitore eta parte-hartzaile guztiei, edozein sarrera-irteeretan, tenperatura hartuko zaie.

6. ERITASUN KASUETAN JARDUTEKO PROTOKOLOA:

a) Neska mutilek ezin izango dute Eguberrietako Tailerrean parte hartu baldin eta:

- COVID-19rekin lotutako sintomaren bat badu (eztula, sukarra, arnasa hartzeko zailtasuna, etab.).
- Azken bi egunetan espazio txikia partekatu badu, neurri egokiak hartu gabe, COVID-19ak eragindako pertsona batekin.

b) Transmisioari aurrea hartzeko neurriak:

- Parte-hartzaileek koronabirusarekiko duten egoera partikularren ardura hartu beharko dute. Hala, haur batek COVID-19 delakoarekin lotutako sintomatologia badu, ez da joango eta jardueraren koordinatzailearekin harremanetan jarriko da 607 92 26 34 telefonoan eta Udaleko teknikariarekin rgarralda@aranguren.es helbidean eta 948 151382 telefonoan.
- Jardueraren arduradunek horren segurtasuna zainduko dute, instalazioetan sartzean/ateratzean parte-hartzaileen tenperatura kontrolatuz eta ezarritako segurtasun-protokolo eta arau guztiak behar bezala betez.

c) Instalazioetan dagoen norbaitek COVID-19 izan dezakeenaren susmoa badago, hau da egin beharrekoa:

- Pertsona bat (begiralea edo parte-hartzailea) COVID 19rekin kutsatuta egon daitekeela **susmatzen** bada, Mutiloako Osasun Zentroaren arabera, pertsona hori maskararekin isolatu behar da pertsona heldu batekin batera horretarako erreserbatutako gune batean, segurtasun-tartea eta leihoa irekita daudela.

Pertsona adingabea bada, aitari/amari edo legezko tutoreari deituko zaio hura jasotzera joan dadin.

Adinez nagusia bada, etxera joango da, garraio publikoa saihestuz, eta etxean isolatuko da.

Ondoren, gurasoak, legezko tutoreak edo adinez nagusia den pertsona beren osasun zentroarekin harremanetan jarriko dira.

- Egindako frogek Covid19 kasua **baieztatzen** badute, osasun-zerbitzuen gomendioei jarraituko zaie uneoro, eta haiekin koordinatuta jokatu da. Jarduerak bertan behera utziko dira eta:

-Parte-hartzaileak (adingabeak eta begiraleak) isolatu.

-Familiei egoeraren eta hartutako neurrien berri emango zaie.

-Jarduera bertan behera utziko da.

-Haurrak osasun-agintariak gomendatutakoaren arabera jasoko dira.

-Instalazioak epe laburrean itxiko dira, sakon garbitzeko/desinfektatzeko eta hurrengo asteko taldeetarako prestatzeko.

- Covid19ekin kutsatuta egotea **baztertz**en bada, osasun eta familia arloko agintariekin adosturiko protokoloa jarraituko da, beste edozein gaixotasun bezala.

Uneoro zainduko da kutsatutako pertsonaren pribatutasuna eta konfidentzialtasuna.

Nolanahi ere, jarduera bertan behera uzteko Osasun Publikoaren instrukzio eta jarraibideak beteko dira beti. Bertan behera utzi behar izanez gero, familiei jakinaraziko zaie.

7. FAMILIEKIN HARREMANETAN JARTZEKO PROTOKOLOA:

Jardueraren koordinatzaileak sarrera eta irteeretan egonen dira, familiek izan dezaketen edozein zalantza argitzeko.

Hala ere, senide guztiei pazientzia eskatzen zaie eta lehenetasuna dutenak haurrak direla ulertzea. Erantzungo zaie, baina parte-hartzaileen sarrera eta segurtasuna bermatu ondoren.

Ikastetxera ez da inor sartuko ekipoaren baimenik gabe. Beharrezkoa bada, higiene kontroletik pasatu beharko da.

Haur batek eskolatik atera behar badu, aitak/amak/tutoreak sinatutako baimen bat ekarri beharko du, irteera-eguna eta ordua adieraziz.

Beharrezkoak ez diren aglomerazioak eta kontaktuak saihesteko, familien eskura jarriko dira zerbitzu hau kudeatzen duen enpresaren telefonoa eta helbide elektronikoa: 607 922634 / pausoka@pausokaocio.com

Aranguren Ibarreko Udaleko Gizarte Zerbitzuekin harremanetan jartzeko: 948151382 rgarralda@aranguren.es

1. ERANSKINA: ARANGUREN IBARREKO UDALAREN 2021KO EGUBERRIETAKO TAILERREAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK ONARTZEA

NAN _____ zk. _____ duen

J./And.-k
bere izenean eta ondorengo haurren ama/aita/tutorea denez:

Nire erantzukizunpean adierazten dut goiburuan ageri diren datuak dituen pertsonak azaldutako jardueretan parte hartzea nahi dudala. Horretarako, xehetasunez irakurri dut erakundeak berak emandako informazioa eta parte hartzeko baldintzak onartzen ditut. Nire konpromisoa adierazten dut nahitaezko higiene- eta prebentzio-neurri pertsonalekin, eta erantzukizun osoa hartzen dut COVID-19az kutsatzeko aukeraren aurrean.

Aitortzen dut ARANGURENGO UDALAREN 2021ko EGUBERRIETAKO TAILERRA COVID-19era egokitzeko protokoloari buruzko informazio osoa dudala eta bat natorrela bertan proposatzen diren neurri eta prozedurekin.

Aitortzen dut, aurreko agiriko informazioa jaso eta arretaz irakurri ondoren, nire semeak/alabak COVID-19 delakoak eragindako osasun-krisiaren testuinguruan ARANGUREN IBARREKO UDALAREN EGUBERRIETAKO TAILERREAN parte hartzeak dituen arriskuak ezagutzen ditudala eta nire ardurapean onartzen ditudala.

Mutiloan, 2021koaren(e)an

DATUEN BABESA

- **Tratamenduaren arduraduna:** Ayuntamiento del Valle de Aranguren- Arangurengo Udala
- **Helburua:** 2021ko EGUBERRIETAKO TAILERRA kudeatzea.
- **Eskubideak:** Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeke eta beste eskubide batzuek baliatzeko udal-bulegoetara jo beharko da, edo dpd@aranguren.es helbidera.
- **Informazio gehiago:** <http://www.aranguren.es/> -ren pribatutasun-politika